



# IGARABA ARRUNTA

## *Lutra lutra*

### TAMAINA

1 - 1,3 m

### ITXURA

Ile marroi ilunak argiago bilakatzen dira  
sabelaldean eta lepoan.

Hankak motzak eta palmatuak dira, eta  
buztanaren punta zorrotza da.

Itxura hidrodinamikoa du, buru leunarekin.

## NOLA IDENTIFIKATU?

Presentzia-indizeak: gorotzak eta aztarnak.



gorotzak



aztarnak

### NOIZ?

> Urte osoan zehar

### NON?

- > Erreketan
- > Ibaietan
- > Aintziretan
- > Urmaeletan



Koipua edo Kastore euroasiarrarekin nahas daiteke igerika ari delarik.

## AURKEZPENA

### BIZI ESPERANTZA

4-5 urte (10 urte arte)

### ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Arrainak, igelak, karramarroak, karraskariak eta  
abar jaten ditu.

Igaraba arrunta gehienik gauzez eta ilunabarrean  
bizi den animalia erdi-urtarra da.

Indibidualista eta lurraldekoa da, eta bere bizi-  
eremua usain handiko gorotzen bidez markatzen  
du. Bizi-eremuen tamaina, ibai bateko 20 km  
ingurukoa da.

Igarabaren pausalekuak lurreko zuloak edo aire  
zabaleko zulotxoak izan daitezke.

## BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Igaraba elikagaien eskuragarritasunarekiko  
oso sentikorra da. Bereziki, ibaien kalibrazioak,  
hezeguneen idortzeak, ibaiertzen suntsipenak eta  
kutsadurak eragiten diote eskuragarritasun horri.

Bestalde, instalazio horiek igaraben zirkulazio  
askearentzat oztopoak dira.

Ondorioz, elikagaien eskuragarritasuna  
bermatzeko, habitatak beharreko kalitatezkoak  
izan behar dira. Ibai-korridoreen jarraitasunak, hau  
da, zirkulazio askatasunak, erabatekoa izan behar  
du populazio batek iraun dezan. Instalazioetan  
animalientzako pasabideak jartzea konponbide  
bat izan liteke.